

## ANTZINAKO ERREGIMENAREN GIZARTEAREN EZAUGARRIAK TESTUEN BIDEZ

### 1. Pribilegioak: Eskubideetan ezberdina den gizartea

“Hiribildu honek <Los Santoskoa, Salamankako partidukoa> berez bertako bizilagunena da horientzako burutu zen erosketak dela medio (...) On Juan Manuel Zuñigakoari, Valeroko markesa, zeini egokitu zitzaion hiribildua bere *eskubide, regalia* eta *pribilegioekin*, (...) hiribilduen laguntzako errege ahalmenaren bidez irabazia, eta horren truk (...) bi koarto, 195.281 maravedi (...)”

Diru honen truk erositako eskubideak hauexek izan direlarik: *goi eta behe jurisdikzioa*<sup>[1], [2]</sup>mero eta mixto inperioa, jauntza eta basailutza edo morroitza eta jurisdikzio zibil nahiz kriminalean berdintasuna (...)” **Ensenadako Katastroa**, 1505 paper-sorta, 21 orria eta ondorengoak)


### 2. Industrializazioa aurreko gizartearen arazoak

“Negua gorri gorria izana zen (1709koa), zein ez zen halakorik gogoratzen. Bi hilabete oso iraun zuen izoztaldia ... Versaillesko jauregiko egoitzetako kristalezko likore botilak izozteko tamainakoa; neronek ikusi nuen nola apurtu ziren horietariko batzuk... Hormak fruitu-arbolak hil zituen, baratzak eta zitu landak suntsitu zituen ... Ezin imajinatu zer nolako hondamendia sortu zen ondoren. Aurreko urteko zitu erresebak zituztenak gorde zituzten arras ongi leku aproposetan; ogiaren prezioa garestituz joan zen biltzeko zegoen uztaren hondamendiaren proportziora. (...) Gariaren prezioaren inguruko ediktuak aldarrikatu ziren, finkatu nahian; metatzaileak aurkitu zituzten eta probintzietara komisarioak bidali ziren. (...) Mareschal, erregearen zirugia buruak, erregeari egoera azaltzearen ausardia izan zuen (...). Harridura erakutsi zuen ere, Mareschal ez zigortzeko modura arte, baina horretan gelditu zen dena. Metatzaileek bere lan zorigaiztoarekin jarraitu zuten, nahiz eta luzatutako ediktuak beraien lana salatzerara behartu; hala ere gizon gizajo batek metatzaile bat salatzeagatik zorrozki zigortua izan zen (...)”

Aldi berean zergak, handituak, bortxakeriaz ere jasoak, Frantzia suntsitzea lortu zuten. Dena garestitu zen ikaragarri (...) Nehork ezin zuen ordaindu inork soldata jasotzen ez zuelako; nekazariak zergak eta ekoizpen urriengatik era bat nekaturik zeuden, kaudimengabekoak (insolbenteak) ziren; komertzioa agortuta zegoen, eta fede ona desagertua zen. Erregeak bere botere bukaezinak zabaltzeko ikara eta indarkeria erabiltzen zuen (...) Jada ez zien ezta bere gualozteei ordaintzen. (...) Moneta birtxanpontzera jo zuen, hasiera batean balioaren heren bat garestitzeak mozkinak eman zizkion, baina partikularrak hondoratu zituen eta komertzioan desoreka itzela sortarazi zuen (oraindik gelditzen zenean), hondoratu arte. (...) Samuel Bernard (bankaria) bere negozioa hertsitu zuenean, ur jauzi baten eragina sortu zuen Lyoneko hirian. (...) Lyongo eskualdea eta aldameneko Italia sekulan ez zuten lortu bere hondamenditik ateratzen.

*Louis de Rouvroy (1675-1755) Saint-Simoneko dukea, memoriak*

### Izoztaldiak ekonomian eragin zuzena du



[1] Batek duen ahalmena eta boterea legeak indarrean jartzeko eta gobernatzeko.

[2] Meroa: erregeak duen gaitasuna gaizkileei zigorrak ezartzeko. Mixtoa: epaileek duten gaitasuna epaiketa zibiletan parte hartzeko eta sententziak burutzeko.